

Irakurri 2007 kanpaina hasi da liburutegiak hurbiltzeko

Erredakzioa. Donostia.

Irakurri 2007 kanpaina jarri du martxan Eusko Jaurlaritzak liburutegiak adin guztietako herritarrengana hurbiltzeko asmoz. Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko 166 liburutegik parte hartuko dute ekimen horretan, iaz baino %15 gehiago, eta ekimen berrituekin. Etxean irakurtzeko gogoia pizteko 12 urrats izeneko gidarekin irakurzaletasunari hauspoa emateko saioa biltzen du, besteak beste, kanpainak.

Bestalde, Irakurri 2007 ekimeneko jarduera nagusietako batean DBHko ikastetxe publiko eta pribatuetako 12 eta 16 urte bitarteko ikasleak izango dira protagonistak, argazki digitalaren lehiaketa batean ariko baitira.

Liburua ageri duen erretratua izango da lehiaketaren gaia. Irudirik onenek sari bikainak jasoko dituzte.